

9. Kostuen egitura

Gure kasuan ez digu inolako gasturik eragingo, udaletxearen dugun akordioa dela eta, berak finantzatzen baigaitu. Bai argi indarra, gasa... hau da, funtsezko baliabideak.

Gure proiektua aurkeztu genuenean horrela adostu genuen, hots, behar ditugun baliabideetaz beraiek arduratuko zirela.

Enpresa orok, kostu finko eta aldakorrak dituen bezala guk ere baditugu.

Finkoak: Enpresan beti sortuko diren gastuak izango dira, ura, argia, gasa, janaria... Gastu hauek finkoak izango dira.

Gastuak hilabetearen arabera izango dira. Udaletxeak diru kopuru bat emango digu eta ikusten joango gara hilabetearen arabera zein nolako gastua izango dugun.

Gu izango gara ardura hartu beharko duguna janariaren lista egiteaz eta erostez astero eta ura eta gasaren gastua kontrolatzeaz. Hilabetero ura eta gasaren fakturak, udaletxeari pasa beharko dizkiogu.

Aldakorrak: ura, argia, elektrizitatea astero aldakorra izan daiteke bezero kopuruaren arabera. Izan ere, astero ez dugu bezero kopuru bera izango eta horrek, ura, argia, elektrizitate eta janaria izango dira aldatuko direnak.

Tailerreko materiala ere aldakorra izango da bezero kopuruaren arabera. Tailerren jarduerak finkoak izango dira, baina bezeroa izango dira aldakorra izango dena.